

ERASO! “grisez bustitako egunak”

gizartearen loak...

gizartearen eskeletoan badirudi dagoela honen erantzuna baina ez pentsa ez zaituz utzi ta hori nahi dute ta agintari zikinak zigorgabetasun lotsagarrienak beste herrien adostasunak kaleko jendearen elkartasunak gobernu guztien ez entzuteak

gizartearen loak ekar ditzazken kezak

baina bada oraindik ere arnasteko haize freskoa ez dugunok sinisten globalizazioan badugu zereginik, badugu bail! zigorgabetasun lotsagarrienak beste herrien adostasunak kaleko jendearen elkartasunak gobernu guztien ez entzuteak

gizartearen loak ekar ditzazken kezak

beraiek egiten duten bezala erasoak erasotuz defendatu beharko dugu harrigarria da gizateriaren momenturik zailena eta etikoki erabilgarriena nola moralki den zikinena

gizartearen loak ekar ditzazken kezak

bortizkeri odoltsu eta handienak ta gainera legalki bizitzea sarraskiez betetako gobernuak ez du ezertarako balio zigorgabetasun lotsagarrienak beste herrien adostasunak kaleko jendearen elkartasunak gobernu guztien ez entzuteak

ispilua apurtu da

zenbat balio du odolaz beteriko barrilak zenbat balio du suntsitutakoa berreraikitzea

ta nola ordaindu beharko dezute apurtutako arimak ta nola ulertu diruaren hotsak barruan duena

ispilua apurtu da milaka zatitan sinistea libre da soilik gure barnean ispilua apurtu da milaka zatitan libre izatea -libre ote da?

goazen!!! beingoiz beingoiz beingoiz.....

ez ikusteak, begiak ixteak edonor min egiten dion jarrera sakon gutxiko herri bat izatea ez da okerrenea, ez da okerrenea!!

sistemaren esklabu

espekulazioaren politikan sistemaren esklabu bihurtzeko arriskua

askatasunari prezio garestiegia ezarri eta identitateari ere oztopoak jarri bakoitzaren ametsa altxatzea zailegi

eta okerrenea ez da hori baizik eta milaka etxebizitza hutsik

jendearen ezinak badu errudunik ezarri diren mugasariak iragazi ezinik haiek lortutakoa badoa amildegitik

gure aiton amonek galdu zuten gu ere galtzen ari garen bezalaxe

askatasunari prezio garestiegia ezarri eta identitateari ere oztopoak jarri bakoitzaren ametsa altxatzea zailegi

gezia

gezi batek bihotzian ematen dit bete betian orain lo nagoela zeure ametsen barrena nabigatzen hasi naizenean zure ametsgaiztoen superheroia monstrooen salbatzaile izan nahi nuke

gezi batek bihotzian ematen dit bete betian

gezia, aurrera doa gezia, salbu inor ez da

udaberriko eguzkiak loratzen dituen zelaien kolore ederak eguzkia eskutatu da eta orain berriz betiko iluntasunera ihesi behar

alargun beltzaren besarkada

gauzak aldatuz doaz uneoro mundu bitxi honekin batera, aldatuz doaz

uneoro gauzak aldatuz doaz mundu bitxi honekin batera gatazka ugarien ondoren beldurra eta menpekotasuna ez esan ezer ezta negarrik egin ez al daukazu bihotzik ez duzu ezer ezta adorerik ez nauk berriz engainatzerik

alargun beltzaren besarkadak harrapatu zaitu

gauzak aldatuz doaz uneoro mundu bitxi honekin batera, aldatuz doaz

lehengoak eta oraingoak elkar lotura handia dutela eta ez noa behin eta berriz zure aita izango banintz bezala ematea nire barruko altxorrik ederrena ene arima erabiltzea ez da zilegi ez da zaila

baina orain urrun zara!!

altzairuzko taupadak

berandu nabil baina hobe orain egitea baina halere etzait arindu negar malkoa

kantu honen bidez saiatzerik badut? nire amorrua kentzeko balio badu altzairuzko taupadak ez dira hutsik geratu oroitzen ziztadak geurean gorde ditugu

zorigaiztoko gaixotasun batek eraman zintuen nire ametsak, zure begietan ikusi ondoren

barruan dudan amorrua tatuari gelditu zaidana ez dut hitzez esateko tamaina, baina...

kantu honen bidez saiatzerik badut? nire amorrua kentzeko balio badu altzairuzko taupadak ez dira hutsik geratu oroitzen ziztadak geurean gorde ditugu

zorigaiztoko gaixotasun batek eraman zintuen nire ametsak, zure begietan ikusi ondoren

kantu honen bidez saiatzerik badut? nire amorrua kentzeko balio badu altzairuzko taupadak ez dira hutsik geratu oroitzen ziztadak geurean gorde ditugu

gertaerak

hauetako egunen batetan kalendarioaren orriak kentzerakoan zakarrontzira botatzen dituzun bezala ez utzi, ez utzi, gertaerak harrapa zaitzala

nire bakardadearen unerik bakarrena nire ahotsaren jabea bihurtzen naizenean irakasgai zaila bai, beti arrazoia ez duena, ez utzi

galdu ditut erresuma horretan nituen laztan goxoen jabegoa arrantzaleen modura portutik aldentzean bion artekoa, ozeanoko zulo baten galdu dela!!

hauetako egunen batetan kalendarioaren orriak kentzerakoan zakarrontzira botatzen dituzun bezala ez utzi, ez utzi gertaerak harrapa zaitzala

baina ez noa nire negarran itotzera galdutako denbora alferrik ez da pasa argi dudana honezkero hauxe da bion artekoa ozeanoko zulo baten galdu dela!!

ze huts garen

burua galtzen dutkoordinadetan berreskura ezin ditudan mapetan

ze huts garen lainotan hilezkorak lur orotan eromenak dakar airearen zama igarri dezadan hegazkina dardar

ze huts garen lainotan hilezkorak lur orotan denboraren hegala erresuma zabala bizien hilkutxa da barne laberintoa

erabakiak damuz eta orduak mamuz jazen diren ezerez koherenteen bidez ze huts garen lainotan hilezkorak lur orotan

otsoak otsoari laztan

otsoak otsoari laztan azpijokoz moztortua nazkatu naiz itxuraz faltxukeriaz jokatu

putasemeak bailire arima aspaldi dute salduta sentimenak nahiko luke beraiengan bilatu lekua

ez ezin dute ezin dute ezer egin

gerra tamborak entzun ditudan bakoitzean demokraziaren gas urduria menpera erori da

eta aski da sarraskiez eta aski da gezurrez zuri ta beltzaren jokuez mantu baten estalitako mamuez

ez ezin dute, ezin dute ezer egin

ihes!!

sinisten etzaiztuztenean bizkarra ematen dizutenean negar egin duzun horretan momenturik txarrean ihes!!

geldiezin den momentua baloreak lekuz aldatzen direnean benetazko mina, barruan samina nabarmendu dira zure izaeran ihes!!

gaiztoa zara, benetan maltzurra zure onerako lortu nahia paradisuko atea duzu itxita infernukoa berriz irekia

grisez bustitako egunak

horietakoa izateko itxura du gaur itxura du.....